



Aurrekontuak genero ikuspegiarekin  
UPV/EHU

Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte  
Erantzukizunaren arloko  
Errektoreordetzaren gastuaren analisia

2013/2014 Ekitaldia

AURREKONTUAK GENERO  
IKUSPEGIAREKIN (AGI) UPV/EHU<sup>n</sup>:  
IKASLEEN, ENPLEGUAREN ETA GIZARTE  
ERANTZUKIZUNAREN ARLOKO  
ERREKTOREORDETZAREN GASTUAREN  
ANALISIA, 2013/2014 EKITALDIA

UPV/EHUKO BERDINTASUNERAKO ZUZENDARITZA

2016ko apirilaren 20ko Gobernu kontseilua

Egileak: Yolanda Jubeto Ruiz  
**Mertxe Larrañaga Sarriegi**  
Ekonomia aplikatua I  
UPV/EHU

UPV/EHUko Berdintasunerako Batzordeak berrikusita

2016ko apirilean onartuta

## AURKIBIDEA

Taulen zerrenda

1. SARRERA
2. UPV/EHUko AURREKONTUA
  - 2.1. IKASLEEN, ENPLEGUAREN ETA GIZARTE ERANTZUKIZUNAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZAREN AURREKONTUA
  - 2.2. IKASLEEN, ENPLEGUAREN ETA GIZARTE ERANTZUKIZUNAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZAREN AURREKONTUA
3. EGIKARITZE TXOSTENA
  - 3.1. AZTERKETAREN AURKEZPENA
  - 3.2. IKASLEEN ZUZENDARITZAREN ANALISIA
  - 3.3. PSIKOLOGIA APLIKATUKO ZERBITZUAREN ANALISIA
  - 3.4. ENPLEGUAREN ARLOKO ANALISIA
  - 3.5. BERDINTASUNERAKO ZUZENDARITZAREN ANALISIA
  - 3.6. GIZARTE ERANTZUKIZUNEN ZUZENDARITZAREN ANALISIA: GARAPENERAKO LANKIDETZA BULEGOA
  - 3.7. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK
4. ERANSKINAK
  - 4.1. **ERANSKIN 1: INFORME DE LA DIRECCIÓN DE ESTUDIANTES**
  - 4.2. **ERANSKIN 2: INFORME DEL SERVICIO DE PSICOLOGÍA APLICADA**
  - 4.3. **ERANSKIN 3: INFORME DEL ÁREA DE EMPLEO**
  - 4.4. **ERANSKIN 4: INFORME DE LA DIRECCIÓN PARA LA IGUALDAD**
  - 4.5. **ERANSKIN 5: INFORME DE LA DIRECCIÓN DE RESPONSABILIDAD SOCIAL: LA OFICINA DE COOPERACIÓN AL DESARROLLO**

## TAULEN ZERRENDA

1. taula. UPV/EHUren (2013-**2015**) **aurrekontua (€ eta %)**
2. taula. Ikasle, Kirol eta Kulturari eskainitako 6. programaren 061 eta 066 **azpiprogramen aurrekontua (€)**
3. Taula. *Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren aurrekontua (007), 2014*
4. **Taula. 061 programaren ekintzak eta aurrekontua 2013an eta 2014an (€)**
5. **Taula. 066 programaren ekintzak eta aurrekontua 2013an eta 2014an (€)**
6. Taula. *Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren kontratu programak (€)*
7. Taula. Komunikazio Bulegoaren aurrekontua, 2013an eta 2014an (A52 kontratu programa)
8. Taula. Gizarte Erantzukizunaren aurrekontua, 2013an eta 2014an (A53 kontratu programa)

# 1. SARRERA

Txosten honen xede nagusia Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren 2014ko gastuaren zenbait programa genero ikuspegitik aztertzea da. Programa horiek garrantzitsuak dira hainbat arrazoiengatik. Lehenbizi, unibertsitateko kolektiborik handienarekin, hau da, ikasleekin, lotura zuzena duten eta haien bizitza kalitatearekin zerikusi handia duten jarduerak eta unibertsitatean zein lan merkatuan ikasleek duten partaidetzaren sustapena biltzen dituztelako. Horrez gain, Unibertsitateak barneko egitura eta ekintzetan dibertsitate funtzionala integratzearen alde emakume eta gizonezkoen aukeren berdintasunarekin eta gizartearekin, oro har, hartu duen konpromisoarekin lotutako programak ere sartzen dira. Aldi berean, jarduera horiek garrantzitsuak dira kuantitatiboki zein kualitatiboki. Aztertutako arloek, zenbait kasutan, aurrekontu handia dute, I kapitulutik kanpo (Ikasleen Zuzendaritzak 384.790 €, Lankidetzak Bulegoak 117.874 €, Berdintasunerako Zuzendaritzak 89.800 €). Beste kasu batzuetan aurrekontua oso murrizta da (Psikologia Aplikatuak 13.000 €).

Dokumentu hau Euskal Unibertsitate Publikoaren aurrekontuen politikan generoaren ikuspegia sartzeko 2011n hasitako prozesuaren parte da. Xede nagusia unibertsitateko komunitateko emakumeek eta gizonek duten posizioa zehazki ezagutzea da eta, halaber, emakumeei mendeetan zehar inposatu zaien sexuaren arabeko lan-banaketak eragindako desberdinkerien ondoriozko bereizketak detektatzea. Esparru akademikoa eta zientifikoa ez da salbuespena izan, zeren emakumeek hainbat oztopo gainditu behar izan baitituzte unibertsitateko komunitateko kide izateko (ikasle zein irakasle gisa) XX. mendean ondo sartu arte, eta horrek mugatu egin ditu emakumeen aukerak erakunde honen barruan karrera unibertsitarioko baldintza berdinekin egiteko. Azken hamarkadetan egindako lege-aldaketak oinarriak ezarri dituzte, emakumeen posizioa aldatzeko, baina oraindik desberdintasunak antzematen dira, batez ere, familiako eremu pribatuan emakumeei eta gizonezkoek ematen zaizkien rol desberdinen ondorioz. Emakumeek erantzukizun garrantzitsuak izan dituzte ugaltzeari dagokionez eta horrek denbora murriztu die beste jarduera batzuetan aritzeko, besteak beste karrera profesionala egin ahal izateko. Horixe da, besteak beste, emakumeek eta gizonezkoek espazio publikoetan duten parte-hartzearen desberdintasunak azaltzen dituzten arrazoiak bat.-

Hala ere, azken hamarkadetan emakumeak indar handiz sartu dira unibertsitateetan eta horrek erakundearen egiturak aldarazi ditu; gero eta emakume gehiago dira ikasle, irakasle edo ikertzaile gisa ezagutzaren arlo askotan parte hartzen duten emakumeak. Horrez gain, emakume askok sektore publikoan lan egitea erabaki ohi dutenez, unibertsitatean ere nabarmendu

egiten dira aldaketa horiek lan munduan, bai Irakasleak eta Ikertzaileak (IIP) gisa, eta baita Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala (AZP) gisa ere. IIP-ei dagokienez, 2013ko datuen arabera, emakumeak guztizkoaren % 45 ziren<sup>1</sup> eta AZP-ri dagokienez, kontratatutako pertsonen % 64 ziren, hau da, bigarren kolektibo horretan, emakumeen kopurua, gizonezkoena baino handiagoa da, zenbait lanpostutan lan bereizkeria antzematen bada ere.

2014an, UPV/EHUren aurrekontua 395.387.569 €-koa izan zen; beraz, termino nominaletan, 2013ko ekitaldikoa baino % 0,62 handiagoa. 2013ko aurrekontua 2012koa baino % 9,24 txikiagoa zen. UPV/EHUri esleitutako aurrekontuaren izozte-egoera horrek jarraitu egin zuen 2015ean, zeren 2014koaren aldean, % 0,29 baino ez baitzen hazi.

Azterketa honen gai nagusia Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren gastuen aurrekontuaren analisia egitea da, bi datu-iturriren arabera. Lehenbizi, gastuen partidak adierazten dira, unibertsitateak 2014an onartu zituen aurrekontuen proiektuan sailkatzen diren moduan. Eta, bigarrenik, Errektoreordetza horren zuzendaritzek eta organoek emandako informazioa aztertu dira.

Txostena era honetan egituratu da: Sarrera honen ondoren, laburbilduz, UPV/EHUren aurrekontu osoari eta Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren aurrekonturi dagozkien zenbateko nagusiak azaltzen dira. 3. atalean, txosten betearazlea adierazten da. Txosten horretan hautatutako Zuzendaritzen, Arloen eta Zerbitzuen aurrekontuen ezaugarri nagusiak azaltzen dira, betiere, sexuaren araberrako desagregaziotik abiatuz. Txosten betearazlea ondorio eta gomendioen atalarekin bukatzen da. Azkenik, 4. puntuan, azterketa honetan parte hartu duten organoek egindako txostenak eranstean dira.

---

1

Datu hori IIP-ri dagokio: 2013ko ekitaldian, arlo horretan kontratu bakarra egin zen. Ikus, *Aurrekontuak genero ikuspegiarekin (AGI) UPV/EHUn: Lehen Hurbilketa. I. kapituluaren analisia.*



## 2.UPV/EHU-REN AURREKONTUA

## 2.1. UPV/EHU-REN AURREKONTUAREN DOKUMENTAZIOA

Unibertsitateak hiru liburukitan aurkeztu du bere aurrekontuaren dokumentazioa. I. liburukiaren hasieran, aurrekontuaren gako nagusien azalpen memoria bat dago. Bertan, unibertsitate erakundearen diru sarreren iturria eta berezko helburuak azpimarratzen dira eta zuzkidura ekonomiko handiena duten azpiprogramak nabarmentzen dira; azpiprograma horiek kontratatutako langileekin eta unibertsitatean duten kokapenarekin (sailak, **zentroak, zerbitzuak...**) **daude lotuta.**

Jarraian, gastuaren analisi laburra egin da, sailkapen ekonomikoari eta gastu programen araberako sailkapenari jarraikiz. Sailkapen ekonomikoak **adierazten du baliabideak (langileetan, material arruntetan, inbertsioetan...)** nola gastatzen diren, eta, gastu programen araberako sailkapenak, dirua zertarako gastatzen den, alegia, zer jarduera egiten diren dauden baliabideekin. Zifra horiek unibertsitateak batez ere Eusko Jaurlaritzarekin sinatzen dituen kontratu programen bidez esleitutakoekin osatzen dira. Kapitulu, artikulua eta kontzeptuen araberako aurrekontuaren laburpenak (sailkapen ekonomikoaren desagregazioa) egin ondoren, programen laburpena egin da, unitate arduradun bakoitzeko, eta, amaitzeko, sailkapen funtzionalaren (programak, azpiprogramak, helburuak, ekintzak eta kontzeptuak) deskribapen zehatzagoa.

II. liburukiak aurrekontuaren analisi xehatua jasotzen du, gastu unitateen, programen eta azpiprogramen arabera. Eta III. liburukiak kontuen plana eta aurrekontuari aplikagarria zaion kontabilitateko araudia deskribatzen ditu.

**Atal honetan, labor aurkeztuko ditugu Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko aurrekontuaren zifra orokor batzuk, aztertutako programen analisia kokatzeko.**

1. taulan ikusten denez, 2014an 1. kapituluaren pisua, langileen gastuak jasotzen dituen, unibertsitate bideratutako baliabideen % 73 da; izan ere, aktiborik handiena da erakundearentzat lan egiten duten langileak. Langileek erabiltzen duten materialaren gastu arrunta baliabideen % 19,4 da eta inbertsioak hirugarren postuan daude, baliabideen % 5,47.

1. taula. UPV/EHUREN (2013-2015) **aurrekontua (€ eta %)**

	2013	2014	% guztizkoaren gainean 2014	2015
I. kapitulua	288.298.148	290.483.625	73,4	302.224.260
II. kapitulua	76.229.952	76.722.990	19,40	71.297.135
III. kapitulua	139.173	270.654	0,07	256.878
IV. kapitulua	3.782.510	3.490.691	0,88	2.042.694
V. kapitulua	23.010.983	21.635.665	5,47	17.915.488
VIII. kapitulua	100.000	100.000	0,03	100.000
IX. kapitulua	1.184.616	2.468.542	0,62	2.484.348
Gizarte Kontseilua	215.402	215.402	0,05	236.877
Guztira	392.960.784	395.387.569	100%	396.557.681

Iturria: Egileek egina, UPV/EHUREN aurrekontu dokumentaziotik abiatuta, 2013, 2014, 2015.

Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren lehen aipamena zeharka dago programen deskribapenean; izan ere, 6. programan, Ikasle, Kirol eta Kulturari eskainitakoan, hark kudeatutako bi azpiprogramak jasotzen dira, 061 eta 066.

2. taula. Ikasle, Kirol eta Kulturari eskainitako 6. programaren 061  
**eta 066 azpiprogramen aurrekontua (€)**

Kodea	Deskribapena	2013	2014	% $\Delta_{14/13}$
061	Inform., orde. eta ikasleen ant.	1.104.673	1.155.797*	4,63
	I. kapitulua	723.883	775.007	7,06
	Gainerakoak	380.790	384.790	1,05
066	Gizarte erantzukizuna	350.987	451.709	28,70
	I. kapitulua	188.887	149.609	-20,79
	Gainerakoak	162.100	302.100	86,37

Iturria: Egileek **egina, UPV/EHUREN aurrekontu dokumentaziotik abiatuta, 2013, 2014.** (\*Batukaria ez dator bat I. kapituluaren eta gainerakoen baturarekin; 4.000 euro falta zaizkio).

2. taulan ikusten da 066 azpiprograman aldaketa esanguratsuak egon direla edukian, % 20 murriztu delako langileentzako partida eta % 86 egin dutelako gora gizarte erantzukizunerako gainerako esleipenak.

Hala ere, unitate arduradunaren araberako aurrekontuaren laburpenean, *Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren* eta aurrekontu esleipenaren lehen erreferentzia dago; aurrekontu esleipenean langileen gastuak uzten dira kanpo. Eta ikusten dugu aurretik gizarte erantzukizunari esleitutako kopuruen zati bat ez dagoela Errektoreordetzaren mende, baizik eta Gerentziaren mende; bertan, 140.000 euroko partida bat dago, 066 azpiprogramarako (63. or.); partida hori, gerora, Errektoreordetzaren kontabilitateari gehituko zaio, txosten honen hurrengo atalean ikusiko dugun bezala.

3. taula. *Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren aurrekontua (007), 2014*

Kodea	Deskribapena	Zenbatekoa
0007	Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetza	547.390,00
	061 INFORMAZIOA, ORDEZKARITZA ETA IKASLEEN ANTOLAKETA	384.790,00
	066 GIZARTE ERANTZUKIZUNA	162.600,00
0007	% UPV/EHUren aurrekontuari dagokionez	0,13%

Iturria: Egileek egina, UPV/EHUren aurrekontu dokumentaziotik abiatuta, 2014.

3. taulan ikusten da, beraz, *Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzak* kudeatutako kopurua 2014an 547.390 euro zirela (I. kapituluaren gasturik gabe), alegia, UPV/EHUren aurrekontu globalaren %0,13ren parekoa.

Nahiz eta aurrekontu pisua oso txikia izan, Errektoreordetza honen gastu programak aztertzea aukeratu izanaren arrazoiak bi izan dira, oinarrian:

- Sartzeko erraztasuna programen pertsona arduradunen kasuan, Berdintasunerako zuzendariak eta *Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko errektoreordeak* proiektu honetan duten antolamendu eta inplikazio onagatik.

- Errektoreordetza honek, nolabait, aukera ematen digulako UPV/EHUren hirugarren kolektibo handira jotzeko, ikasleen kolektibora; kolektibo hori, azaleko arrazoiak direla eta, I. kapituluaren analisisan kanpo geratzen da.

## 2.2. IKASLEEN, ENPLEGUAREN ETA GIZARTE ERANTZUKIZUNAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZAREN AURREKONTUA

*Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren aurrekontua Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) aurrekontu dokumentazioan dago jasota, bi azpiprogramatan (061 eta 066) eta 3 kontratu programatan (A51, A52 eta A53). Ekintzak eta aurrekontu gordailuak hurrengo 4. taulan laburtzen dira.*

4. taula. 061 programaren **ekintzak eta aurrekontua 2013an eta 2014an (€)**

Taldeak	Zk.	Ekintzak	2013	2014
1	1.1.	Ikasle Batzordeen jarduerak	30.000	30.000
	1.2.	Ikasle Batzordeen jarduerak, Araba	2.000	2.000
	1.3.	Ikasle Batzordeen jarduerak, Gipuzkoa	3.000	3.000
	1.4.	Ikasle Batzordeen jarduerak, Bizkaia	5.000	5.000
	1.5.	Ikasleen Elkart. jard. eta asoziazionismoaren sustapena	20.000	20.000
2	2.1.	Ikasketa amaieren bidaien diru laguntza	100.000	100.000
	2.2.	Bilera sektorialen diru laguntza	15.000	15.000
3	3.1.	Ikasleentzako orientazioa, babesa eta laguntza	13.040	17.040
	3.2.	Ikasleentzako sarien deialdia	8.050	8.050
	3.3.	Errektoreordetzako Zerbitzuen garapena	184.700	184.700
1+2+3	061	GASTU ARRUNTAK ETA INBERTSIOAK	380.790	384.790
LG	061	LANGILEEN GASTUAK	723.882,87	775.007,5
GUZTIRA	061	1+2+3+LG	1,104.672,87	1,159.797,54

Iturria: Egileek egina, UPV/EHUren aurrekontu dokumentaziotik abiatuta, 2013, 2014.

Programa, azpiprograma, helburu, ekintza eta kontzeptuen arabera aurrekontuaren xehapenerako atalean zehazten da 061 azpiprograma **“Informazioa, ordezkari eta ikasleen antolaketa” hornitzera bideratuta** dagoela. 2014an lau helburu izan zituen:

1. Ikasleen kolektiboaren autoantolaketa sustatzea, ordezkari organoen bidez.
2. Ikasleen elkarten jarduerak babestea
3. Ikasleei babesa eta orientazioa eskaintzea unibertsitate bizitzako faseetan, bai eta laguntza bereziak behar dituzten egoeretan ere.
4. Lankidetzaren ekimena sustatzea, ekintza solidarioen bidez<sup>2</sup>.

4. taulan ikus dezakegunez, aurrekontua ia izoztuta mantendu da bi urteotan; izan ere, gorakada bakarrik ikasleentzako orientazioan, babesean eta laguntzan izan da; haren aurrekontua % 30 hazi den arren (4.000 euro), programan orokorrean duen pisua txikia da (% 1,5). Langileen gastuak bi urteetan programa horri eskaintzeko kopuruaren bi heren izan dira ia (% 65-66 artean); ondoren Errektoreordetzaren zerbitzuen garapen gastuak egon dira (% 16 inguru). Azpiprograma honen gauzatze analisia 3. ataleko Ikasleen Zuzendaritzaren txostenean jasotzen da.

Bestalde, 066 azpiprograma Gizarte Erantzukizunari dago eskainita, eta bi helburu nagusi ditu. Lehenengoaren helburua da genero berdintasunean aurrera egitea unibertsitate jardueran, eta bigarrenaren helburua da unibertsitateko elkarteko kideek garapenerako lankidetzaren proiektuetan, elkartasuneko, garapen jasagarriko eta ingurumenarekiko errespetuaren jardueretan parte har dezaten sustatzea<sup>3</sup>.

2014an, unibertsitate jardueran genero berdintasunaren inguruko aurrerapenari buruzko helburuan, esplizituki presente dago sexu aniztasuna; hura aurrekontuan ere jasoko da, helburu zehatz horrekin lotutako jarduerari 4.000 euro esleitu baitzaizkio.

**5. taula. 066 programaren ekintzak eta aurrekontua 2013an eta 2014an (€)**

Taldeak	Zk.	Ekintzak	2013	2014
1.	1.1.	Berdintasunerako Zuzendaritza	60.800	56.800

<sup>2</sup> Laugarren helburua 2014an gehitu da. Ez zegoen jasota 2013an.

<sup>3</sup> Bigarren helburu horrekin lotutako jarduerak guztietatik, txosten honetan Lankidetzarako Bulegoak garatutakoak bakarrik aztertu dira.

	1.2.	Aniztasun afektibo-sexualaren inguruko sentsibilizazioa		4.000
2	2.1.	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Bulegoa	86.400	86.400
	2.2.	Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritzaren jarduerak	10.400	150.400
	2.3.	G9 proiektuak Afrikako unibertsitateekin	4.500	4.500
	2.4.	Jarduerak gizarte mugimenduekin elkarlanean	500	500
1.+2.	066	GASTU ARRUNTAK ETA UNIBERTSIOAK	162.100*	302.100*
		LANGILEEN GASTUAK	145.267,28	149.608,83
GUZTIR A	066	1+2+LG	307.367,28**	451.708,83**

Iturria: Egileek egina, UPV/EHUren aurrekontu dokumentaziotik abiatuta, 2013, 2014.

**Gizarte Mugimenduak; "Aurrekontuan 500 euro gehitu behar dira.**

\*\*Aurrekontu dokumentuan zenbaki hori falta da (500 falta zaizkio)

5. taulak erakusten du Errektoreordetza honen aurrekontu partida gehienek ez dutela aldaketarik izan 2014 ekitaldian, 2013koaren aldean, 140.000€-ko gorakada salbuetsita Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritzaren Jardueren atalean; aurretik Gerentzian ikusi ditugun 140.000€-ekin bat dator kopuru hori. Kapituluaren arabera gastuen partiden banakapena irakurtzean, ikusten dugu 140.000€ horien % 85 (120.000€) Unibertsitateak kontratatutako enpresa batek eginiko hondakinen tratamendura bideratu dela, eta gainerako 20.000 euroak jarduera ekonomikoaren gaineko zergetara, ziur aski aurreko atalarekin lotuta.

Gainera, Errektoreordetza honen jarduerak, Gizarte Erantzukizunera bideratuek, finantzaketa osagarria dute, 3 kontratu programaren bidez. A51 Berdintasun Planaren zati bat gauzatzera bideratuta dago; A52, Errektoreordetzaren Komunikazio Planera; eta A53, Gizarte Erantzukizunera, oro har.

6. taula. *Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren kontratu programak (€)*

Taldeak	Kap.	Ekintzak	2013	2014	% guztira, 2014
A51		Berdintasun Plana	29.000	29.000	8,2%
	48	Transferentziak eta diru laguntzak (hainbat jardueratarako emandako diru laguntzak eta sariak)	29.000		
A52 <sup>4</sup>		Komunikazio Plana	124.400	125.500	35,4%
	1	Langileen gastuak	54.400		
	2	Funtzionamendu Gastuak	70.000		
A53		Gizarte Erantzukizuna	196.700	200.000	56,4%
	1	Langileen gastuak	151.700		
	2	Funtzionamendu Gastuak	30.600		
	4	Gastu arrunten transf. eta diru lag.	14.400		
GUZTIRA		KONTRATU PROGRAMAK	350.100	354.500	100

Iturria: Egileek egina, UPV/EHUren aurrekontu dokumentaziotik abiatuta, 2013, 2014.

6. taulan ikusten denez, 3 kontratu programa horien aurrekontuaren erdia baino gehiago gizarte erantzukizunera bideratuta dago, eta partidarik txikiena **Berdintasun Planera bideratutakoa da, nabarmen (29.000€)**. Hala ere, **A53** kontratu programa hainbat Errektoreordetzari esleituta dago 2014ko aurrekontuan. Horrela, lehen liburukian, programaren xehetasunean, Errektoreordetza honi esleituta dago (245. or.). Hala ere, II. liburukian, Hedakuntzaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzari lotuta dago (347. eta 721. or.), eta horrek errakuntza dakar kokapenaren eta edukien inguruan.

Berdintasunerako Zuzendaritzaren A51 kontratu programaren kasuan adierazten da hura Berdintasun Plana gauzatzera bideratuko dela; beraz,

<sup>4</sup> Gaur egun, Komunikazio Plana Hedakuntzaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzari atxikita dago.



**kontratu programa honen 29.000€ Zuzendaritzaren plangintzan sartzen dira eta** edukiak Zuzendaritza honi buruzko txostenean aztertuko dira (txosten honen 4.4 atala).

Gainera, Errektoreordetzak beste bi kontratu programa ditu: A52 eta A53. 7. eta 8. tauletan informazioa banakatuta dago, hasierako aurrekontu dokumentazioan jasotzen den bezala.

7. taula. Komunikazio Bulegoaren aurrekontua, 2013an eta 2014an (A52 kontratu programa)

K. Prog.	Kap.	Ekintzak		2013	2014
A52		KOMUNIKAZIO BULEGOA			
	1	Langileen gastuak		54.400	55.500
		12	Langile Funtzionarioak (AZP)	42.400	
		16	Enpresa kuota (GS) (AZP)	12.000	
	2	Funtzionamendu gastuak		70.000	70.000
		25	Beste lan batzuk	70.000	
Guztira	1+2	KOMUNIKAZIO BULEGOA		124.400	125.500

Iturria: Egileek egina, UPV/EHUren aurrekontu dokumentaziotik abiatuta, 2013, 2014.

A52 kontratu programan Komunikazio Bulegora bideratutako **125.500€**-en % 45 haren bidez kontratatutako AZP langile gastuetarako erabiltzen da, eta, % 55, funtzionamendu gastuetarako.

8. taula. Gizarte Erantzukizunaren aurrekontua, 2013an eta 2014an (A53 kontratu programa)

K. Prog.	Kap.	Ekintzak		2013	2014*	2014ko %
A53	1	Langileen gastuak		151.700	155.000	77,5
	2	Funtzionamendu gastuak		30.600	30.600	15,3
	4	Transferentziak eta gastu arruntetarako diru laguntzak		14.400	14.400	7,2
Guztira		GIZARTE ERANTZUKIZUNA		196.700	200.000	100

Iturria: Egileek egina, UPV/EHUren aurrekontu dokumentaziotik abiatuta, 2013, 2014.

Oharra: 2014ko aurrekontuaren II. liburukian, kontratu programa hau Hedakuntzaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzaren barruan ageri da. Hala ere, I. liburukian jarraitzen du A5 "Gizartearen berdintasuna eta hedakuntza" programaren barruan eta Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetza honen barruan agertzen.

Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizunari buruzko partidetara bideratutako A53 kontratu programan, 2014an dituen 200.000€-en % 77,5 langileen gastuetara bideratu da, % 15 funtzionamendu gastuetara, eta gainerako % 7,2a, gastu arrunterako transferentzia eta diru laguntzetara.

### 3. EGIKARITZE TXOSTENA

### 3.1. AZTERKETAREN AURKEZPENA

Txosten hau, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak, generoren ikuspegia Unibertsitatearen aurrekontuen analisisian integratzeko asmoz, 2011n hasi zuen proiektu handiago baten integratuta dago. Proiektu horri berriro ekin zitzaion 2014an, UPV/EHUren II. Berdintasun Planean (2014-2017) agindutakoa **betetzeko. Planaren 3.1.7. puntuak hauxe dio: "UPV/EHUko langileen ordainsariak mailaka aztertzea, generoaren ikuspegitik eta aurrekontuaren esparruan"**. Horregatik, lehen dokumentu batean Unibertsitateko IIP-ei eta AZP-ei 2013an ordaindu zitzaizkien soldatak aztertu dira. Horrez gain, unibertsitatearen aurrekontua genero ikuspuntuarekin (AGI) aztertzen jarraitzeko, txosten honetan, Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren 2014ko gastuen partida garrantzitsuenetako batzuk sartzen dira. Azterketa hau zuzendaritza eta arlo horietako langileen laguntzaz egin da, 2015eko bigarren sei hilabetez zehar.

Aurrekontuak Genero Ikuspegiarekin (AGI) egiten direnean bi osagai nagusi kontuan hartu behar dira. Hasieran, errealitatea zehatz-mehatz deskribatzea da helburu, aztertutako jarduera-esparruan emakume eta gizonezkoen artean dauden desberdintasunak azalduz. Horrez gain, kolektibo horietako emakume eta gizonezkoen arteko harremanen oreka lortzen laguntzen duten politika-aldaketak egiteko bidea ematen duen osagaia dute.

Txosten honen xedea Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren 2014an egindako zenbait programa ahalik eta zehatzen aztertzea da. 3. taulan ikus daitekeenez, Errektoreordetza horren gastuen aurrekontua UPV/EHUren guztizko aurrekontuaren % 0,13 da, langileei dagozkien gastuak kenduta. Errektoreordetzak kudeatzen dituen baliabide guztiak batuz gero, langileei eta programa-kontratuei dagozkienak barne, aurrekontu osoaren % 0,49 izatera iritsi daiteke. Kuantitatiboki pisu handirik ez badu ere, interesgarria iruditu zaigu UPV/EHUren gastuen programen analisisa egiten hasteko, Errektoreordetzatik abiatzea, zeren eskuragarria izateaz gain, unibertsitatean hirugarren handiena den ikasleen kolektiboa proiektu honetan sartzeko aukera ematen baitu.

Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren jarduera-arloak bi dira:

- Ikasleak eta enplegua: Errektoreordetzaren aurrekontua 2014an, 384.790,00 €-koa zen, langileei dagozkien gastuak kenduta (aurrekontuaren % 70 Errektoreordetzaren gastu arruntei eta transferentziei dagokie (3. taula)). Langileen gastuak sartuta, hau da, 775.007,5 € erantsita, arlo horretako aurrekontua 1.159.797,54 €-koa da (4. taula).

Arlo honen eginkizuna hauxe da:

- ✓ Unibertsitatean sartu aurreko orientazioa: UPV/EHUren azalpena eta hari buruzko informazioa; ikasleak erakartzea eta matrikulatzeko fasean dauden ikasleei laguntza eta orientazioa ematea.
  - ✓ Ikasleei orientazioa ematea unibertsitatean dauden bitartean **(ikastaroak, bekak, jarduerak...)**.
  - ✓ Ikasleak lan munduan sartzeko gaitasuna lortzen laguntzeko eta sustatzeko eta lan-esparrurako trantsizioan informazioa eta orientazioa emateko jarduerak koordinatzea. Jarduera horiek campusean bertan egiten dira, politika orokorraren esparruaren barruan.
  - ✓ Premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza-premiez arduratzea eta erantzuna ematea.
  - ✓ Unibertsitateko komunitateari laguntza eta orientazio psikologikoa ematea, Psikologia Aplikatuko Zerbitzuaren (PAZ) bidez.
  - ✓ Ikasle egresatuen elkarteekin harremanak izatea: jarduerak kanpoan bultzatzea eta hedatzea.
  - ✓ Ikasleen Kontseiluen bidez bultzatzen diren jarduerak antolatu eta garatu daitezkeen sustatzea.
  - ✓ UPV/EHUko ikasleen erakundeekin harremanak izatea.
  - ✓ Ikasleek UPV/EHUko Gobernu organoetan duten parte-hartzearen segimendua egitea.
  - ✓ Desgaitasunak dituzten unibertsitateko komunitateen premiez arduratzea eta erantzuna ematea.
- Gizarte erantzukizuna: Arlo horretarako aurrekontua, 2014an, 162.600,00 €-koa zen (Errektoreordetzaren aurrekontu osoaren % 30). Hala ere, gero, 140.000 € erantsi ziren, hondakinen kudeaketarako.

Arlo honen eginkizuna hauxe da:

- ✓ Erakunde publiko eta pribatuarekin elkarlanean aritzea honako esparru hauetan: boluntarioritza, unibertsitatearen garapenerako lankidetzak, ingurumenarekiko sentsibilizazioa eta genero ikuspegia.
- ✓ Emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna eraginkorki betetzen dela ziurtatzeko politikak diseinatzea eta inplementatzea; UPV/EHUko unibertsitateko komunitatea osatzen duten organo eta pertsona guztientzat emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna xede nagusia dela kontuan hartuta.

Hona hemen, Errektoreordetza honek dauzkan zuzendaritza eta arlo guztiak:

- Ikasleen zuzendaritza
- Psikologia Aplikatuko Zerbitzua
- Enpleguaren arloa
- Berdintasunerako Zuzendaritza
- Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritza

Guztiek (lau zuzendaritzek eta enpleguaren arloak) proiektu honetan parte hartu dute. Arlo bakoitzak bere iritziz genero berdintasunerako garrantzitsuenak ziren programak hautatu ditu eta programa horiei zegozkien 2013 eta 2014ko emaitzak eman ditu.

Azterketa hau egiteko, honako metodologia hau erabili izan da: Ikertzaileak zuzendaritza edo arlo bakoitzeko arduradunekin bildu dira eta proiektua eta egin beharreko analisia azaldu dizkiete arduradunei. Arlo bakoitzak programa garrantzitsuenei buruzko txostena egin du eta eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei. Harreketan jarri diren pertsonak hauek izan dira:

- Fernando Etxegarai Agara, ikasleen zuzendaria
- Patricia Insua Carretani, Psikologia Aplikatuko Zerbitzuko (PAZ) zuzendaria.
- Xabier Txopitea Zugadi eta Nerea Aranguren Blanco, Bizkaiko Enplegu Gunekoak (Basoko Etxea).
- **Teresa Nuño Angos, Berdintasuneko zuzendaria.**
- Iratxe Amiano Bonachea, Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria

Dokumentu honetan arduradunek egindako bost txosten eransten dira. Txosten betearazlean, txosten horietako alderdi garrantzitsuak nabarmentzen dira- Aipatu beharra dago, arlo eta zuzendaritzen jarduerak mota askotakoak direla eta, halaber, txostenak egin dituzten pertsonak ere anitzak direla. Beraz, emaitzak ere desberdinak dira. Txostenen garapen-maila ere desberdina izan da eta, ondorioz, ikerketa honetaz arduratzen diren ikertzaileek ere ez dute txostenok egiten parte hartzeko izan duten aukera ere ez da berbera izan.

Aztertu diren zuzendaritzen eta arloaren aurrekontuetan ez dira kontuan hartu zuzendaritza edo arlo horien funtzionamenduaz arduratzen diren IIPko irakasle liberatuei dagozkien zenbatekoak. Liberazio horiek % 50ekoak dira Berdintasunerako, Gizarte Erantzukizuneko eta Psikologia Aplikatuko Zerbitzuko zuzendarien kasuetan.

### 3.2. IKASLEEN ZUZENDARITZAREN ANALISIA

Ikasleen Zuzendaritzak lau jarduera-arlo nagusi ditu. Ikasleen parte-hartzea bultzatzen du unibertsitateko bizitzan, batez ere, ikasleen elkarleen bidez. Unibertsitateko eta unibertsitatera sartuko diren Ikasleentzako Argibide Zerbitzua (IAZ) du. Zerbitzu horren bidez, ikasiko dutena hautatzen laguntzen zaie ikasleei eta helburu horrekin, ekitaldiak antolatzen dira, besteak beste,

Unibertsitate Orientazioko Jardunaldiak, Jarduera praktikoak, Unibertsitate Orientazioko Feriak edota Ateak zabaltzeko egunak.

Gainera, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua (DPZ) ere badu. Zerbitzu horren helburua aniztasun funtzionala duten ikasleen aukera berdintasuna gauzatzea da. Halaber, kartzelan dauden ikasleen arretarako zerbitzua ere badu. Zerbitzu hori kartzelan dauden eta administrazioak ezarritako eskakizunak betetzen dituzten ikasleentzako da.

2014an, Ikasleen zuzendaritzaren aurrekontua 1.159.797,54 €-koa izan zen; horietako 775.007 € (% 67) I. kapitulukoa da. Gainerako aurrekontuaren (384.790,04 €) % 55 zerbitzuetarako, orientazio jardueretarako eta sarietarako erabili dira; % 30 ikasturte amaierako bidaiak oraintzen laguntzeko eta sektoreko bilerak egiteko erabiltzen da eta gainerako % 16 ikasleen kontseiluekin lotutako jardueretarako da.

IAZ-ko langile teknikariak gaur (2015ean) 4 emakume eta 2 gizonezko dira eta gizon horietako bat Zerbitzuaren zuzendaria da. Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren (EPZ) organigraman 14 pertsona daude: 13 emakume eta gizonezko 1. Araban teknikariak bi emakume dira, Bizkaian 5 emakume teknikari eta gizonezko 1 dira eta Gipuzkoan 5 emakume teknikari eta administrazioako laguntzailea den beste emakume bat dira.

**“Ikasleen informazioa, ordezkaritza eta antolakuntza” sustatzeko erabili den** aurrekontua ia izoztuta egon da 2013 eta 2014 urteetan, zeren gehikuntza bakarra ikasleentzako orientazio, sustapen eta laguntzan gertatu baita, eta horretarako lehen zegoen aurrekontua % 30 gehitzen badu ere (4.000 €), programa osoan duen pisua oso txikia da (% 1,5). Aurrekontuan pisurik handiena duten gastuak langileei dagozkienak dira; aipatutako bi urteetan, gastu horiek programarako zenbateko osoaren ia bi heren dira (% 66). Hurrengo gasturik handienak Errektoreordetzaren zerbitzuak garatzeko dira (% 16 inguru).

Zuzendaritza honek programaren barruan egin dituen jardueren artean hauexek dira aipagarrienak:

2013-2014 ikasturtean V Encuentro de **Orientación** Universitaria, con el tema **principal “Mirando al Futuro” antolatu ziren. Topaketetan 173 pertsonak parte** hartu zuten, haietako % 74,5 emakumeak. Horren arabera, jardunaldietan parte hartzen duten Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ikastetxetako orientatzaile gehienak emakumeak dira.

Jardunaldiak antolatu dituzten zentroen helburu nagusia, jarduera praktiko horien bidez ikasleak zentro bakoitzak ematen duen ezagutza-arloan sartzea da. Emakume eta gizonezkoen kopurua nahikoa orekatua da, zeren Bizkaiko

eta Gipuzkoako campusetan % 40-% 60 tartean baitago. Arabako campusean emakumeen kopurua bi heren baino gehiago da. Bigarren hezkuntza irakasleei dagokienez, 2013-2014 ikasturteko ekitaldian parte hartu zuten irakasle emakumeak kolektibo horretako parte hartzaileen 2/3 dira. Horrek adierazten du emakumeen parte-hartzea handia izan zela.

2013-2014 ikasturteko Unibertsitate Orientaziorako Azokari dagozkion datuen arabera, UPV/EHUko zentroen eta zerbitzuen ordezkarien artean emakume eta gizonezkoen presentzia orekatua izan zen. Hiru campusetan parte hartu zuten emakumeen kopurua % 50 baino handiagoa da, baina inon ez da gainditzen % 60; beraz, ekintza horietan presentzia berdintsua izan zela esan daiteke. Hala ere, azako horietan parte hartu zuten emakumeen kopurua, dirudienez, IIP-an duen pisua baino handiagoa da, zeren 2012-2013 ikasturteko datuen arabera emakumeen ehunekoa % 41,5ekoa baita. Bildutako galdetegietatik ateratako datuen arabera, Unibertsitate Orientaziorako Azoketan parte hartu zuten ikasleei dagokienez, campus guztietan emakumeen kopurua handiagoa izan zela ikusten da. Hiru campusetan, gizonekin alderatuz, emakumeen ehunekoa 2 bider handiagoa da, hau da, gizonezko bakoitzeko bi emakume dira. Partaidetza handiago horren arrazoia neskek nahiago dituzten karrerak gehiago eskaintzea izan daiteke.

Eta jardunaldi horietara joan ziren pertsona guztiei dagokienez, sexu bietako pertsonen presentzia nahikoa orekatua da hirur campusetan, baina emakumeen kopurua beti da handiagoa (% 60 inguru).

25 urtetik gorako pertsonentzako antolatutako saioen kasuan ere emakume gehiagok parte hartu zuten, zeren hirur campusetan % 58 gainditu baitzuten; azpimarragarria da Bizkaiaren kasua, zeren han % 66 baino handiagoa baita.

UPV/EHUK 2013-2014 ikasturtean antolatu zituen Sektore Elkartek sustatzeko esparruari dagokionez, Informatika Fakultateak Sektore elkarten bileraren antolaketa finantzatu du. Fakultate horretako bi pertsonaren izenak eman zituzten (emakume 1 eta gizonezko 1) eta egin ziren 13 sektore bileretara 31 pertsona joan ziren (14 gizonezko eta 17 emakume). Aurrekontua 15.000 €-koa izan zen.

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren (EPZ) kasuan, zerbitzu hori erabiltzen duten ikasleen satisfazioa adierazten duten zenbait inkesta dauzkagu. Inkesta horietan, eta azken urteetako datuen arabera ikus daitekeenez, zentroen balorazioak hobera egin du. Azpimarragarria da zerbitzuaren ekintzei eta emaitzei emandako nota 8 izan dela 10etik.

Horrez gain, dibertsitate funtzionala duten eta zerbitzua erabili duten ikasleen satisfazio maila 126 inkestatan aipatzen da, EPZ erabiltzen duten 266 pertsonen



artean, eta hori dibertsitate funtzionala duten unibertsitateko ikasleen % 47,3 da. UPV/EHUko inkestei erantzun dieten emakumeen proportzioa gizonezkoena baino apur bat handiagoa da (% 55 emakumeak eta % 44,45 gizonezkoak).

Kartzelan dauden ikasleen arretarako zerbitzua 24 ikaslez arduratu da 2013-2014 ikasturtean; horietako 21 gizonezkoak dira. Kopururik handiena Gipuzkoako campusekoa da (% 59), gero Arabako campusekoa eta Bizkaikoan kopurua askoz txikiagoa da (3 ikasle bakarrik, hirurak gizonezkoak). Ezinezkoa da zerbitzu horien aurrekontuen analisia egitea, zeren, aurrekontuaren dokumentazioan behintzat, ez baitute berariazko partida esleituta,

### 3.3. PSIKOLOGIA APLIKATUKO ZERBITZUAREN ANALISIA

UPV/EHUko Psikologia Aplikatuko Zerbitzua (PAZ) 2002an sortu zen. Hasieran Psikologia Fakultatearekin lotuta zegoen, baina 2008az geroztik, Ikasleen Errektoreordetzarekin lotuta dago.

UPV/EHUko aurrekontuen II. liburuak daukan informazioaren arabera, zerbitzu horren funtzionamendurako aurrekontua 2014an 13.000 €-koa da. Aurrekontu horretako 6.000 € (% 46) txostenak eta azterketak egiteko erabili ziren. Argi dago, beraz, Zerbitzu horren gastuen partida nagusia I kapitulari (langileen gastuak) dagokiona dela.

Zerbitzuaren zuzendaritzaz beti emakume bat arduratu da; psikologo klinikoa eta Oinarrizko Prozesu Psikologikoetako irakaslea da. 2013-2014 ikasturtean bi emakume kontratatu ziren, psikologo klinikoak, bat Bizkaiko campusaz arduratzeko (Leioan zein Bilbon) eta bestea Arabako eta Gipuzkoako campusaz arduratzeko.

Psikologia Aplikatuko Zerbitzuak pertsonen bizitzaren kalitatea hobetzeko eta garapen integrala lortzeko funtsezkoak diren alderdiak lantzen ditu, besteak beste: estresari aurre egitea, zailtasun psikologikoez arduratzea, dibertsitate afektibo eta sexualaz arduratzea, genero indarkeria, gatazka gobernatzeko eta konpontzea, trebetasun sozial eta emozionalak eta alkohola eta drogak hartzearekin lotuta dauden arriskuei aurre hartzea eta arriskuok murriztea.

PAZ-ak hiru eginkizun ditu: Alde batetik, Psikologia arloko Lehen Mailako Prebentzio Programak egiten ditu unibertsitateko ikasleentzat. Bestetik, Bigarren Mailako Prebentzio Programak egiten ditu unibertsitateko ikasleentzat, asaldura psikologiko baten lehen faseetako zailtasunak murrizteko eta asaldura horren ondoriozko ondoreen iraupena laburtzeko.

Halaber, laguntza psikologikoa ematen die laguntza hori eskatzen duten unibertsitateko langileei (8-10 saio gehienez).

2013-2014 ikasturtean 117 kontsulta egin zituzten, kontsultan % 70az emakumeak arduratu ziren. Aurreko ikasturtean tratamendua hasi zuten pertsonak kontuan hartuta, denetara 124 pertsonari eskaini zitzaizkien laguntza.

Zerbitzua hartu zuen kolektiboaren gehiengoa gaztea da, zeren batez ere ikasleak baitira. Gehienak graduiko ikasleak dira (% 77,3) eta graduondoko ikasleak % 7,3 dira. Halaber, IIPari emandako arreta % 7,3 da eta PAZ-arena % 8,1.

Zerbitzuan gehien tratatu diren asaldurak antsietate-asaldurak dira (F41); 13 pertsonak jasan dituzte eta horietako % 76,9 emakumeak dira. Depresioei dagokienez (F32) 8 pertsona tratatu dira, eta horien % 87,5 emakumeak dira; estres larriari eta egokitze-asaldurei dagokienez (F43) 7 pertsonari eman zaie zerbitzua eta horien % 71,4 emakumeak dira.

Osasun egoeran eragiten duten faktoreei dagokienez, garrantzitsuenak bizitza-zikloen aldaketetara egokitzearekin lotuta daude –15 pertsona, 12 emakumeak (% 80)– eta baita bizimoduarekin lotutakoak ere –13 pertsona, 10 emakumeak (% 76,9)–.

2013-2014 ikasturtean UPV/EHUko zentroy edo zentroy zuzendaritzako kideen eskaerak jaso ziren eta egoki erantzun ziren. Eskaera horien artean azpimarragarriak dira ikasleek edo zentroko zuzendaritza-taldeak egoki kudeatu ezin dituen egoera gatazkatsuak eta irakasleei antsietate-egoera larriak sorrarazten dizkieten jazarpen-ekintzak, haien lanean eragin kaltegarriak dituztenak.

Zerbitzuak emandako laguntzarekiko satisfazio-inkesta anonimoa da eta inkesta egin duen pertsonaren sexua ez da adierazten. Inkesta horretan, zerbitzua erabili izan duten pertsona gehienek ondo balioetsi dute PAZ-a. Ez dago kexa nabarmenik eta laguntza jaso duten pertsona guztien iritziz, aintzat hartu dituzte, errespetatu egin dituzte eta ondo tratatu dituzte. Puntuazioa txikiagoa da instalazioei dagokienez. Arlo hori hobetzeko asmoa dute datorren ikasturtean.

Azaldutako datuetatik ondorioztatu daitekeenez, zerbitzua erabili duten gehienak emakumeak dira. Kontsultetara joan diren gizonezkoen ezaugarriak buruzko hausnarketa eginez, oro har zailtasun akademikoei buruzko kontsultak izan dira eta, halaber, hasitako ikasketak amaitu ahal izateko gaitasunari buruzko zalantzak ere azaldu dituzte. Sintomatologia obsesibo-konbultsiboa zuten pertsona guztiak gizonezkoak ziren. Halaber, kontsultatzen

duten gizonezkoen adina batez bestekoa baino apur bat handiagoa da hiru campusetan, eta horren ondorioz, pentsatu dezakegunez, aldi luzeagoan sufritu zuten kontsultara joan baino lehen. Badirudi gizonezkoek gehiago pentsatu dutela eta laguntza psikologikoa jasotzen hasiz gero, kontsultara joaten jarraitzeko joera dute. Hala ere, argi dago, hain lagin txikian oinarritutako iritza ezin dela orokortu.

Gizonezkoak zerbitzura gehiago hurbiltzeko eta eskaera berdintsuagoa lortzeko asmoz, Unibertsitateko PAZ-a bere jarduera-arlotik urrutiago dauden titulazioetan (batez ere zientzia eta ikasketa arloetan) ezagutzera ematea planteatu dute eta, horretarako, Unibertsitate Orientaziorako Azoketara joatea pentsatu dute.

Halaber, lehen eta bigarren mailako prebentzio programetako jarduerak egiteko asmoa dute, besteak beste, azterketen aurreko estresa eta antsietatea kudeatzeko tailerrak eta eguneroko bizitzako emozioak kudeatzeko tailerrak, eta tailer horien bidez gizonezko ikasleak erakarri nahi dituzte.

Azkenik, zerbitzu hori erabili dutenean ikasleek, poliki-poliki, izan duten esperientzia transmititzea espero dute, arreta klinikoa mantentzeko gaur egun dauden bi psikologo emakumeen kontratuekin. Bizkaiko eta Arabako campusetan eskaera handiagoa izango da; Gipuzkoan, dagoeneko, beste lurralde bietan baino askoz ere handiagoa da (Gipuzkoan, % 50, Bizkaian, % 30 eta Araban % 20), zeren Gipuzkoan orain dela 15 urte baino lehenagotik ezagutzen baita.

### 3.4. ENPLEGUAREN ARLOKO ANALISIA

UPV/EHU enpleguaren lau zentro daude: Gasteizkoa, Donostiakoa, Leioakoa eta Bilbokoa (Sarriko). Zazpi pertsona ari dira lanean, eta horietako lau emakumeak dira. Bost lanpostu teknikarientzako dira eta emakume bat administrazioko laguntzaile gisa aritzen da. Administrazioko laguntzailea eta Kudeaketa Orokorreko emakume teknikari bat Unibertsitatearen eta Eusko Jaurlaritzaren programa kontratuaren barruan daude. Gainerako langileak LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatzen ditu.

Hona hemen Enplegu Zentroen 2014ko aurrekontuaren desagregazioa:

- 1) Ebazpen izenduna, 2014-2015 (2014/07/01-2015/06/30 aldia): 198.000 €; horietako 191.689 € langileen atalean sartu ziren.
- 2) EPEZ VIII programa- SEPIEK finantzatutakoa, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako campusak. 253.207,80 €
- 3) Lehen aukera- Eusko Jaurlaritzak finantzatuta: 690.000 € beken kudeaketari eta langileei (teknikari emakume 1 eta administrazioko laguntzaile emakume 1) dagozkienak.

Aurreko partiden baturak zentro horien aurrekontua handiagotzen du eta 1.141.207,8 €-koa da.

Harremanetan jarri diren pertsona arduradunek (Basoko Etxea-Sarriko Parkea), aspaldiko ibilbidea duten eta zentroen zerbitzuen egituraren finkatuta dauden jarduerak hautatu dituzte azterketa honetarako. Programa hauek aztertu dira:

- Banakako orientazioa
- EPEZ (ERASMUS+) mugikortasun programa
- Talentia programa
- Lehen Aukera beken programa

Banakako orientaziorako programaren oinarria lan-merkatuan integrazteko banakako aholkularitza pertsonalizatua da. 2014an, 1.751 pertsonari eman zitzaizkien zerbitzua eta pertsona horien % 60 emakumeak izan ziren. Zerbitzua eman zaien pertsonen banaketari dagokionez, Gipuzkoa nabarmentzen da, 632 pertsonarekin (% 60 emakumeak), gero Bizkaia dator 606 (% 54 emakumeak) pertsonarekin eta ondoren Araba 513 lagunekin (% 62 emakumeak).

Ezagutza-adarren arabera, banakako arreta gehienak Gizarte Zientziei eta Zientzia Juridikoei dagozkie (% 48), gero Ingeniaritza eta Arkitektura (% 33), Zientziak (% 9), Osasun Zientziak (% 6) eta Artea eta Giza Zientziak (% 5). Emakumeen kasuan, adarretan duten garrantzia hauxe da: Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak (% 52), Ingeniaritza eta Arkitektura (% 23), Zientziak (% 11), Osasun Zientziak (% 8) eta Artea eta Giza Zientziak (% 7). Gizonezkoak honela banatzen dira: Ingeniaritza eta Arkitektura (% 47), Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak (% 42), Zientziak (% 7), Artea eta Giza Zientziak (% 3) eta Osasun Zientziak (% 2).

